



# HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Marko teorikoa





Hezkuntza Berriztatzea



Hezkuntza Ikuskaritza



ISEI-IVEI



# HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

	Aurkibidea
1. Konpetentziaren justifikazioa.	2
2. Konpetentziaren deskribapena.	2
3. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren dimentsioak.	3
4. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa.	6
4.1. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.	7
4.2. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailarako.	22

## 1. Konpetenziaren justifikazioa

Hizkuntza giza garapenerako funtsezko osagaia da bere bi alderdietan, indibiduala eta soziala. Indibiduala, gizabanako bakoitzari pentsatzea, bere ezagutza eraldatzea, bere jarduera antolatzea eta gauzak adieraztea ahalbidetzen diolako. Soziala, sozialki helarazi eta mantentzeaz gain, gizataldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duen jarduera baten baitan eraten eta garatzen direlako. Kultura sortzeko, sendotzeko eta helarazteko tresna da.

Pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboari estuki lotua, hizkuntza sentimenduen erregulatzaileria eta ikaskuntza ororen bitartekorik behinena da, bai bizitzan bai mundu akademikoan. Hizkuntza menderatzea norberaren baitara hobeto hurbiltzeko, modu autonomoan ikasteko, besteen aurrean norberaren burua kokatzeko, bizikidetzara arautzeko eta besteekin elkarlanean aritzeko tresna egokiak edukitzea da.

Hizkuntzak, finean, norberaren irudia sortzen laguntzen du eta besteekiko nahiz ingurunearekiko harreman konstruktiboak faboratzen du. Komunikatzen ikastea beste pertsonekin harremanak ezartzea da, ezagutzen diren heinean aintzat hartuak diren kultura, errealitate eta mundu berrietara gerturatzea.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, hizkuntzaren erabilera-eremu ezberdinetan modu eraginkorrean komunikatzeko ahalmen gisa ulertua, funtsezkoa da, gainerako oinarrizko konpetentziak bezala, norberaren errealizazioa sustatzeko, ikaskuntza modu etengabe eta autonomoan garatzeko, gizarteratzeko eta herritar aktiboa izateko.

## 2. Konpetenziaren deskribapena

**Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia hizkuntza erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez adierazi eta interpretatzekoa eta gizarte- zein kultura-ingurune guztietan linguistikoki elkarreragitekoa.**

Entzutea, mintzatzea eta solas egitea trebetasun linguistiko eta ez-linguistikoak beharrezkoak dituzten ekintzak dira besteekiko eta ingurunearekiko loturak ezartzeko. Horretarako, komunikazio-trukearen berezko arauak erabili behar dira testuinguru ezberdinetan, eta ahozko mintzairaren berezko ezaugarriak identifikatu behar dira komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren ahozko diskurtsoak interpretatu eta ekoizteko.

Irakurtzea eta idaztea informazioa bilatu, bildu, hautatu eta prozesatzeko trebetasunak beharrezkoak dituzten ekintzak dira, pertsona askotariko komunikazio-asmoak dituzten testu-mota ezberdinak ulertu eta ekoizteko gaitzen dutenak.

Hizkuntza-komunikaziorako oinarrizko konpetentziak komunikazioaren egintzan elkarlotzen eta elkar elikatzen diren abilezien, ezagutzen eta jarreraren multzoa barne hartzen du.

Abileziak edo prozedurak askotariko diskurtsoak entzun eta ulertzeko nahiz mintzairaren bidez norberaren ideiak adierazteko beharrezkoak diren trebetasunak dira. Komunikazio-trukea arautzeko beharrezkoak diren estrategiak barne hartzen dituzte, eta baita irakurketa-helburu ezberdinak dituzten askotariko testuak irakurri eta ulertzeko trebetasunak nahiz asmo ezberdinekin askotariko testuak, idazketa-prozesuaren fase guztiak kontrolatuz, idazteko trebetasunak ere.

Ezagutzak edo kontzeptuak beharrezkoak dira hizkuntzaren eta haren erabilera-arauen inguruan gogoeta egiteko. Zehazki, alderdi linguistiko, soziolinguistiko eta pragmatikoei buruzko ezagutzak dira.

Jarrera egokiak dira entzutea, iritziak trukitzea eta besteen usteekiko errespetua nahiz kulturarteko komunikazioarekiko interesa sustatzen dituztenak. Konpetentzia honen funtsezko osagai bat kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren balorazio positiboa da, beste kultura eta herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa. Era berean, irakurketa zein idazketarekiko jarrera positiboa bultzatu behar da, lehena gozamen- eta ikaskuntza-iturri moduan eta bigarrena gizarte-erregulaziorako eta ezagutza helarazteko tresna moduan.

Konpetentzia hau garatzeak hizkuntzak **erabileraren** bidez ikastea dakar askotariko komunikazio-egoera eta -testuingurutan; izan ere, abileziak edo prozedurak, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian funtsezko eduki direnak, erabileraren poderioz –eta erabilera horren inguruan hausnartuta, hobetu ahal izateko– soilik garatzen dira. Ezinbestekoa da hizkuntza erabilera-egoeratan behatu eta aztertzea tresna hori hobeto menderatu ahal izateko, eta horrek hizkuntzaren erabileran esku hartzen duten osagai guztiei buruz gogoeta egitera garamatza.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bi hizkuntza ofizialak –euskara eta gaztelania– modu egoki eta eraginkorrean erabiltzean oinarritzen da, testuinguru ezberdinetako askotariko komunikazio-egoeratan eta gero eta maila formal eta konplexuagoz. Atzerriko hizkuntzen komunikazioan, konpetentzia honen garapenaz aurrez aipatu hizkuntza-trebetasunei lotutako oinarritzko abileziak eskuratzea lortu behar da, komunikazio-egoera eguneroko eta mugatuagoetan.

### 3. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren dimentsioak

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bloke handi batzuetan egituratu da, **DIMENTSIO** deituak. Dimentsio horietako bakoitza **AZPIKONPETENTZIA** batzuetan zertzen da, eta azpikonpetentzia bakoitzerako ikasleak **jakin** eta **egiten jakin** behar duena azaltzen duten **EBALUAZIO-ADIERAZLE** batzuk xedatu dira.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia **DIMENTSIO** hauetan egituratuta dago:

- **AHOZKOAREN ULERMENA edo ENTZUMENA**
- **IDATZIAREN ULERMENA edo IRAKURMENA**
- **MINTZAMENA**
- **IDAZMENA**
- **AHOZKO ELKARREKINTZA**

**ENTZUMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek batez ere hizkuntzaren erabileraren bi arloekin du zerikusia: pertsonarteko harremanak eta komunikabideak.

**IRAKURMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek ezagutzaren gizartean funtsezkoak diren informazioaren tratamendu eta hautaketarako oinarrizko trebetasunak biltzen ditu.

**MINTZAMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoak, batik bat norberak kudeatuak, ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honen baitan, komunikazio-egoera ezberdinetara egokitutako ahozko diskurtsoen ekoizpena gobernatzen duten berariazko trebetasunak menderatu behar dira; diskurtso horiek beren edukiaren antolaeran koherenteak eta bateratuak izan beharko dute.

**IDAZMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuak ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Testuok askotarikoak eta ezberdinak izango dira, komunikazio-egoera anitzetara egokituak, edukiaren antolaeran koherenteak eta testualki bateratuak, eta alderdi formaletan zuzenak.

**AHOZKO ELKARREKINTZA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalari begira behar bezala garatu behar den pertsonarteko komunikazioa sustatzeko oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarrerren multzoa barne hartzen du. Berariazko ezaugarriak dituen dimentsio bat da, batik bat esanahiaren negoziazio partekatuari eta arau soziokomunikatiboak errespetatzeari lotuak.

Aldi berean, aipatutako hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren dimentsio bakoitza **AZPIKONPETENTZIA** batzuetan zertzen da, jarraian doan taulan ageri direnak:

## **1. DIMENTSIOA: ENTZUMENA**

- 1. Ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea.**
- 2. Ahozko testuen helburua antzematea.**
- 3. Ahozko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea.**
- 4. Ahozko testuen edukia kritikoki interpretatzea.**
- 5. Ahozko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea.**

## **2. DIMENTSIOA: IRAKURMENA**

- 5. Idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.**
- 6. Idatzizko testuen helburua antzematea.**
- 7. Idatzizko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea.**
- 8. Idatzizko testuen edukia kritikoki interpretatzea.**
- 9. Idatzizko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea.**

## **3. DIMENTSIOA: MINTZAMENA**

- 10. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartzea.**
- 11. Ekoizpen-prozesua planifikatzea.**
- 12. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea.**
- 13. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.**

## **4. DIMENTSIOA: IDAZMENA**

- 14. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea.**
- 15. Ekoizpen-prozesua planifikatzea.**
- 16. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea.**
- 17. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.**

## **5. DIMENTSIOA: AHOZKO ELKARREKINTZA**

- 18. Komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea.**
- 19. Arau soziokomunikatiboak errespetatzea.**
- 20. Komunikazioari eusteko eta haren eraginkortasuna areagotzeko estrategiak erabiltzea.**

Dimentsio eta azpikonpetentzien zerrenda ikasle baten hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian esku hartzen duten hizkuntza guztiei aplikagarria da. Zerrenda, aurkezten den moduan, EAEko hizkuntza ofizialei begira egin da. Azpikonpetentzia hauek eta dagozkien adierazleak atzerriko lehen edo bigarren hizkuntza batean espero daitekeen menderatze-mailara egokitzeko, hainbat ñabardura egin beharko lirateke.

#### 4. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa

Azpikonpetentzia bakoitzak hura deskribatzen duten oinarriko adierazle batzuk ditu bereizgarri. Era berean, adierazle horietako bakoitza hiru lorpen-mailatan zertu da. Maila horiek, probak egin aurretik ezarri direnez, lan-hipotesiak baino ezin daitezke izan. Ezarritako mailen baliozkotasuna behin proben emaitzak aztertu ondoren egiaztatu beharko da.

Mailak finkatzeko irizpide gisa parametro hauek baliatu dira:

- ***Agindutako atazaren lorpen-maila.***
- ***Agindutako atazaren konplexutasuna.***
- ***Alderdi ezberdinak (ideiak, egitura...) elkarlotzeko ahalmena.***
- ***Autonomia-maila agindutako ataza egitean.***
- ***Hizkuntza-zuzentasunaren maila.***
- ***Esplizitua ez dena inferitu eta interpretatzeko ahalmena.***
- ***Ataza egiteko ezagutza linguistikoak kontzienteki erabiltzea.***

Parametro horiek adierazle ezberdinei aplikatuta, azpikonpetentzien garapen-maila bakoitzean ikasleengandik espero daitezkeen portaerak gutxi gorabehera deskribatu ahal izango ditugu.

**Hasierako mailan** kokatuko ditugu beren adinari dagozkien komunikazio-atazak modu osatugabe eta partzialean egiteko adinako diskurtso-trebetasunak dituzten ikasleak. Gehienetan ez dira ezarritako komunikazio-helburua lortzera iristen. Hizkuntzaren funtzionamendua modu oso mugatuan menderatzen dutela agerian uzten duten elementu linguistiko bakanak ezagutzen, erabiltzen edo menderatzen dituzte. Atazak lagunduta eta autonomia eskasaz burutzen dituztelarik, gehienetan ez dituzte beren akatsak identifikatzen eta ez dira horiei irtenbidea aurkitzeko gai.

**Erdi mailan** kokatuko ditugu beren adinari dagozkien komunikazio-atazak modu egoki eta nahikoa osatuan egiteko adinako diskurtso-trebetasunak dituzten ikasleak, batzuetan laguntza behar badute ere. Gehienetan, ezarritako komunikazio-helburua lortzen dute. Beren adinari begira hizkuntzaren funtzionamendua egoki menderatzen dutela agerian uzten duten elementu linguistikoak ezagutzen, erabiltzen edo menderatzen dituzte. Argi eta ekarri egokiaz mintzatzen dira. Halaber, testuak ulertu eta ekoizteko beste hizkuntza batzuetako zenbait ezagutza baliatzen dituzte.

**Maila aurreratuan** kokatuko ditugu beren adinari dagozkien komunikazio-atazak eraginkortasun handiz egiteko adinako diskurtso-trebetasunak dituzten ikasleak. Eskuarki, ezarritako komunikazio-helburua lortzen dute. Hizkuntzaren funtzionamendua modu egoki eta eraginkorrean menderatzen dutela agerian uzten duten elementu linguistikoak ezagutzen, erabiltzen edo menderatzen dituzte. Naturaltasunez, argi eta ekarri egokiaz mintzatzen dira, eta aldi berean diskriminaziozko esaerak saihesten ahalegintzen dira. Testuak ulertu eta ekoizteko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak kontzienteki baliatzen dituzte. Proposatutako atazak modu autonomoan burutzen dituzte eta ia beti beren akatsak identifikatu eta horiei irtenbidea aurkitzeko gai dira.



**4.1 Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako**

**1. dimentsioa: Entzumena**

**1.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) zentzu orokorra identifikatzea.**

Adierazleak:

- Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.*
- Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du.*
- Idea nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.*
- Testuko ideien arteko harremana antzematen du.*
- Zikloaren berezko lexikoa ezagutzen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren zentzu orokorra gutxi gorabehera identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren informazio-edukia, xehetasun handirik gabe, laburbiltzen du.</li> <li>• Ahozko testuaren ideia nagusia antzematen du.</li> <li>• Testuan ageri den hiztegiaren zati bat ezagutzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren gai orokorra parafraseatzen du.</li> <li>• Testuaren informazio-edukia gehienbat jasotzen duen laburpen ordenatua egiten du.</li> <li>• Ideia nagusiak bereizten ditu.</li> <li>• Testuan ageri den hiztegiaren zatirik handiena ezagutzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren gai orokorra parafraseatzen du.</li> <li>• Testuaren informazio-edukiari buruzko laburpen oso eta ordenatua egiten du.</li> <li>• Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.</li> <li>• Bigarren mailako zenbait ideiak nagusiarekin duten harremana antzematen du.</li> <li>• Testuan ageri den hiztegia ezagutzen du.</li> </ul>

**2.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) helburua antzematea.**

Adierazleak:

- Testuaren xedea identifikatzen du.*
- Testuaren igorlea antzematen du.*
- Igorlearen asmoa identifikatzen du.*
- Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.*
- Testuaren generoa antzematen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunduta, testuaren xedea identifikatzen du.</li> <li>Lagunduta, testuaren igorlea antzematen du.</li> <li>Lagunduta, erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.</li> <li>Lagunduta, testuaren generoa antzematen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testuaren xedea identifikatzen du.</li> <li>Testu narratiboen igorlea antzematen du.</li> <li>Lagunduta, igorlearen asmoa identifikatzen du.</li> <li>Gehienetan, erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.</li> <li>Testuaren generoa antzematen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testuaren xedea identifikatzen du.</li> <li>Testu narratibo eta azalpenezkoen igorlea antzematen du.</li> <li>Igorlearen asmoa identifikatzen du.</li> <li>Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.</li> <li>Testuaren generoa antzematen du.</li> </ul>

**3.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan (albistek, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.**

Adierazleak:

*Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.*

*Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.*

*Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Testuaren garrantzizko informazioaren zati bat bereizten du.</li> <li>Eskatutako berariazko informazioetako batzuk aurkitzen ditu.</li> <li>Lagunduta, jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testuaren garrantzizko informazioaren zati handi bat bereizten du.</li> <li>Eskatutako berariazko informazio gehienak aurkitzen ditu.</li> <li>Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testuaren garrantzizko informazio bereizten du.</li> <li>Eskatutako berariazko informazioak aurkitzen ditu.</li> <li>Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.</li> </ul>

**4.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albistek, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) edukia interpretatzea.**

Adierazleak:

*Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu.*

*Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.*

*Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*

*Diskriminaziozko esakerak antzematen ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunduta, bere ideietatik abiatuta testuaren informazioa interpretatzen du.</li> <li>Testuaren osagai ez-linguistiko batzuen esanahia antzematen du.</li> <li>Lagunduta, testuaren osagai inplizitu batzuk berreraikitzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bere ideietatik abiatuta testuaren informazioa interpretatzen du.</li> <li>Testuaren osagai ez-linguistiko eta linguistikoen esanahia erlazionatzen du.</li> <li>Testuaren osagai inplizitu batzuk berreraikitzen ditu.</li> <li>Diskriminaziozko esaera batzuk antzematen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bere ideietatik abiatuta testuaren informazioa interpretatzen eta integratzen du.</li> <li>Testuaren osagai ez-linguistiko eta linguistikoen esanahia integratzen du.</li> <li>Testuaren osagai inplizitu gehienak berreraikitzen ditu.</li> <li>Diskriminaziozko esaera ohikoenak antzematen ditu.</li> </ul>

**5.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.**

Adierazleak:

*Entzute aktiboa egiten du.*

*Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.*

*Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*

*Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Arretaz entzuten du.</li> <li>Gaiari buruz aurrez zituen ezagutzetako batzuk aktibatzen ditu.</li> <li>Lagunduta, testuaren edukiari buruz inferentzia batzuk egiten ditu.</li> <li>Lagunduta, beste hizkuntza batzuetako osagai lexikoak alderatzen ditu ulermena hobetzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Entzute aktiboa egiten du, galderak paratuz.</li> <li>Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.</li> <li>Testuaren edukiari buruz inferentzia batzuk egiten ditu.</li> <li>Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Entzute aktiboa egiten du, galdera egokiak paratuz.</li> <li>Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.</li> <li>Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.</li> <li>Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak kontzienteki erabiltzen ditu.</li> </ul>

**2. dimentsioa: Irakurmena**

**6.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) zentzu orokorra identifikatzea.**

Adierazleak:

**Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.**  
**Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du.**  
**Idea nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.**  
**Testuko ideien arteko harremana antzematen du.**  
**Zikloaren berezko lexikoa ezagutzen du.**

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren zentzu orokorra gutxi gorabehera identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren informazio-edukia, xehetasun handirik gabe, laburbiltzen du.</li> <li>• Ahozko testuaren ideia nagusia antzematen du.</li> <li>• Testuan ageri den hiztegiaren zati bat ezagutzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren informazio-edukia gehienbat jasotzen duen laburpen ordenatua egiten du.</li> <li>• Idatzizko testuaren gai orokorra parafraseatzen du.</li> <li>• Idea nagusiak bereizten ditu.</li> <li>• Lagunduta, elementu tipografikoak erabiltzen ditu ideien antolaera identifikatzeko.</li> <li>• Testuan ageri den hiztegiaren zatirik handiena ezagutzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren informazio-edukiari buruzko laburpen oso eta ordenatua egiten du.</li> <li>• Testuaren gai orokorra parafraseatzen du.</li> <li>• Idea nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.</li> <li>• Bigarren mailako zenbait ideiak nagusiarekin duten harremana antzematen du.</li> <li>• Elementu tipografikoak erabiltzen ditu ideien antolaera identifikatzeko.</li> <li>• Testuan ageri den hiztegia ezagutzen du.</li> </ul>

**7.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharra...) helburua antzematea.**

Adierazleak:

**Testuaren xedea identifikatzen du.**  
**Testuaren igorlea antzematen du.**  
**Igorlearen asmoa identifikatzen du.**  
**Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.**  
**Testuaren generoa antzematen du.**

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagunduta, testuaren xedea identifikatzen du.</li> <li>• Lagunduta, testuaren igorlea antzematen du.</li> <li>• Lagunduta, erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.</li> <li>• Lagunduta, testuaren generoa antzematen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gehienetan, testuaren xedea identifikatzen du.</li> <li>• Testu narratiboen igorlea antzematen du.</li> <li>• Lagunduta, igorlearen asmoa identifikatzen du.</li> <li>• Gehienetan, erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.</li> <li>• Testuaren generoa antzematen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren xedea identifikatzen du.</li> <li>• Testu narratibo eta azalpenezkoen igorlea antzematen du.</li> <li>• Igorlearen asmoa identifikatzen du.</li> <li>• Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.</li> <li>• Testuaren generoa antzematen du.</li> </ul>

**8.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharra...) proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.**

Adierazleak:

*Irakurketaren helburua identifikatzen du.*

*Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.*

*Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.*

*Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren garrantzizko informazioaren zati bat bereizten du.</li> <li>• Eskatutako berariazko informazioetako batzuk aurkitzen ditu.</li> <li>• Lagunduta, jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagunduta, irakurketaren helburua identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren garrantzizko informazioaren zati handi bat bereizten du.</li> <li>• Eskatutako berariazko informazio gehienak aurkitzen ditu.</li> <li>• Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketaren helburua identifikatzen du.</li> <li>• Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.</li> <li>• Eskatutako berariazko informazioak aurkitzen ditu.</li> <li>• Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.</li> </ul>

**9.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharra...) edukia interpretatzea.**

Adierazleak:

*Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu.*

*Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.*

*Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*

*Diskriminaziozko esaera antzematen ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagunduta, bere ideietatik abiatuta testuaren informazioa interpretatzen du.</li> <li>• Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia antzematen du.</li> <li>• Lagunduta, testuaren osagai inplizitu batzuk berreraikitzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere ideietatik abiatuta testuaren informazioa interpretatzen du.</li> <li>• Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia erlazionatzen du.</li> <li>• Testuaren osagai inplizitu batzuk berreraikitzen ditu.</li> <li>• Diskriminaziozko esaera batzuk antzematen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere ideietatik abiatuta testuaren informazioa interpretatzen eta integratzen du.</li> <li>• Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia integratzen du.</li> <li>• Testuaren osagai inplizitu gehienak berreraikitzen ditu.</li> <li>• Diskriminaziozko esaera ohikoenak antzematen ditu.</li> </ul>

**10.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharraak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.**

Adierazleak:

- Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.*
- Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*
- Ulermenean arazoak antzematen ditu.*
- Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaiari buruz aurrez zituen ezagutzak aktibatzen ditu.</li> <li>• Lagunduta, testuaren edukiari buruzko zuzeneko inferentziak egiten ditu.</li> <li>• Bere ulermenean zenbait arazo antzematen ditu.</li> <li>• Testuinguruari esker hitz ezezagunak identifikatzen ditu.</li> <li>• Lagunduta, beste hizkuntza batzuetako osagai lexikoak alderatzen ditu ulermena hobetzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.</li> <li>• Testuaren edukiari buruz zuzeneko inferentzia batzuk egiten ditu.</li> <li>• Bere ulermenean arazoak antzematen ditu.</li> <li>• Testuinguruari esker esaera ezezagunak identifikatzen ditu.</li> <li>• Gidatuta, hiztegia erabiltzen du zalantzak argitzeko.</li> <li>• Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren edukiari aurrea hartzeko testu-adierazle batzuk erabiltzen ditu.</li> <li>• Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.</li> <li>• Bere ulermenean arazoak antzematen eta kontrolatzen ditu.</li> <li>• Hiztegia erabiltzen du zalantzak argitzeko.</li> <li>• Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak kontzienteki erabiltzen ditu.</li> </ul>

### 3. dimentsioa: Mintzamina

**11.- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ekoizteko.**

Adierazleak:

- Hartzailearen ezaugarriak kontuan izaten ditu.*
- Testuaren xedea kontuan izaten du.*
- Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.*
- Egoerari begira erregistro egokia hautatzen du.*
- Testu-genero egokia hautatzen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunduta, hartzailearen ezaugarriak kontuan izaten ditu.</li> <li>Lagunduta, testuaren xedea kontuan izaten du.</li> <li>Lagunduta, hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.</li> <li>Lagunduta, genero egokia hautatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hartzailearen ezaugarrietako batzuk kontuan izaten ditu.</li> <li>Testuaren xedea kontuan izaten du.</li> <li>Gehienetan, hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.</li> <li>Lagunduta, erregistro egokia hautatzen du.</li> <li>Gehienetan, genero egokia hautatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hartzailearen ezaugarriak kontuan izaten ditu.</li> <li>Testuaren xedea argi identifikatzen du.</li> <li>Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.</li> <li>Erregistro egokia hautatzen du.</li> <li>Genero egokia hautatzen du.</li> </ul>

**12.- Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) planifikatzen hastea.**

Adierazleak:

*Informazioa hainbat euskarritan bilatzen du.*

*Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.*

*Diskurtsoa egituratzen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunduta, iturri bibliografiko eta digital soiletan informazioa eskuratzen du.</li> <li>Lagunduta, lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.</li> <li>Hautatutako informazioa antolatu gabe aurkezten du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hein batean, iturri bibliografiko eta digital soiletan informazioa eskuratzen du.</li> <li>Lortu nahi den helbururako garrantzizkoa den informazioaren zati handi bat hautatzen du.</li> <li>Hautatutako informazioa modu oinarritzkoan antolatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Iturri bibliografiko eta digitaletan informazioa eskuratzen du.</li> <li>Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.</li> <li>Hautatutako informazioa modu egituratuan antolatzen du.</li> </ul>

**13.- Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) erabiliz egoki mintzatzea.**

Adierazleak:

*Argi eta ekarri egokiaz mintzatzen da.*

*Elementu prosodiko eta keinuzkoak erabiltzen ditu.*

*Testu-generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen ditu.*

*Diskriminaziozko esaerak saihesten ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Bere mintzaldiaren une batzuetan nahiko argi mintzatzen da.</li> <li>Keinuak eta jarrera zailtasunez kontrolatzen ditu.</li> <li>Testu-generoaren oinarritzko ezaugarri batzuk kontuan izaten ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argi eta ekarri egokiaz mintzatzen da.</li> <li>Intonazioa egoki aldatzen du.</li> <li>Keinuak eta jarrera modu nahiko eraginkorrean kontrolatzen ditu.</li> <li>Testu-generoaren oinarritzko ezaugarriak errespetatzen ditu.</li> <li>Bere ekoizpenetan diskriminaziozko esaera batzuk antzematen eta zuzentzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argi eta ekarri egokiaz mintzatzen da.</li> <li>Intonazioa diskurtsoaren ezaugarrietara egokitzen du.</li> <li>Keinuak eta jarrera modu eraginkorrean kontrolatzen ditu.</li> <li>Testu-generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen ditu.</li> <li>Bere ekoizpenetan diskriminaziozko esaera batzuk antzematen eta zuzentzen ditu.</li> </ul>

**14.- Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ekoiztean kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.**

Adierazleak:

- Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu.*
- Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.*
- Ekoizpen-prozesuan autonomia agertzen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikazioari eusteko konpentsazio-estrategiak erabiltzeari ekin dio.</li> <li>Beste hizkuntza batzuetako osagai lexikoak erabiltzen ditu komunikazioari eusteko.</li> <li>Lagunduta, akats batzuk identifikatzen ditu.</li> <li>Ekoizpen-prozesuan autonomia eskasa agertzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikazioari eusteko konpentsazio-estrategia batzuk erabiltzen ditu.</li> <li>Ekoizpen-prozesuan zehar beste hizkuntza batzuetako zenbait ezagutza erabiltzen ditu.</li> <li>Akats batzuk identifikatzen ditu eta horiek zuzentzeko gai da.</li> <li>Ekoizpen-prozesuan nolabaiteko autonomia agertzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikazioari eusteko konpentsazio-estrategiak modu eraginkorrean erabiltzen ditu.</li> <li>Ekoizpen-prozesuan zehar beste hizkuntza batzuetako ezagutzak kontzienteki erabiltzen ditu.</li> <li>Bere akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</li> <li>Ekoizpen-prozesuan autonomia-maila egoki samarra agertzen du.</li> </ul>



#### 4. dimentsioa: Idazmena

**15.- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albistekak, oharrak...) ekoizteko.**

Adierazleak:

*Bere ekoizpenerako, testuaren xedea kontuan izaten du.*

*Bere testua hartzailera egokitzen du.*

*Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.*

*Egoerari begira erregistro egokia erabiltzen du.*

*Testu-genero egokia hautatzen du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagunduta, testuaren xedea jasotzen du.</li> <li>• Hartzailearen ezaugarriak kontuan izaten ditu.</li> <li>• Lagunduta, hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.</li> <li>• Lagunduta, erregistro egokia hautatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren xedea jasotzen du.</li> <li>• Bere testuaren oinarriko alderdi batzuk hartzailera egokitzen ditu.</li> <li>• Gehienetan, hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.</li> <li>• Lagunduta, erregistro egokia hautatzen du.</li> <li>• Zenbait aukeren artetik, genero egokia hautatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren xedea argi jasotzen du.</li> <li>• Bere testua hartzailera egokitzen du.</li> <li>• Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.</li> <li>• Erregistro egokia hautatzen du.</li> <li>• Genero egokia hautatzen du.</li> </ul>

**16.- Gidatuta, hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albistekak, oharrak...) ekoizteko prozesua planifikatzea.**

Adierazleak:

*Informazioa hainbat iturritan bilatzen du.*

*Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.*

*Testuaren edukia eta forma planifikatzen eta egituratzen ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunduta, iturri bibliografiko eta digital soiletan informazioa eskuratzen du.</li> <li>Lagunduta, lortu nahi den helbururako garrantziko informazioa hautatzen du.</li> <li>Testu-generoaren berezko egitura zailtasunez erabiltzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunduta, iturri bibliografiko eta digital soiletan informazioaren bat eskuratzen du.</li> <li>Lagunduta, lortu nahi den helbururako garrantziko informazioaren bat hautatzen du.</li> <li>Informazioa testu-generoaren arabera modu oinarrizkoan egituratzen du.</li> <li>Gidatuta, paragrafoa erabiltzen du testuaren ideien antolatzaile gisa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Askotariko iturri bibliografiko eta digitaletan informazioa eskuratzen du.</li> <li>Lortu nahi den helbururako garrantziko informazioa hautatzen du.</li> <li>Informazioa testu-generoaren arabera egituratzen du.</li> <li>Paragrafoa erabiltzen du testuaren ideien antolatzaile gisa.</li> </ul>

**17.- Hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertuko bidez (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albistek, oharra...)** adierazi beharrekoa modu egokian adieraztea.

Adierazleak:

*Testua egoki eta zuzen aurkezten du.*

*Askotariko hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu.*

*Diskriminaziozko esaerak erabiltzea saihesten du.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Testu-generoaren oinarrizko ezaugarri batzuk errespetatzen ditu.</li> <li>Testua berrikusteko, zikloaren berezko ezagutza linguistikoa batzuk erabiltzen ditu.</li> <li>Zikloaren berezko arau gramatikal, lexiko eta ortografiko batzuk errespetatzen ditu.</li> <li>Kohesioko oinarrizko prozedurak zailtasunez erabiltzen ditu.</li> <li>Azken testua idazteko, IKTak zailtasunez erabiltzen ditu.</li> <li>Lagunduta, bere ekoizpenetan diskriminaziozko esaera batzuk identifikatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testu-generoaren oinarrizko ezaugarriak errespetatzen ditu.</li> <li>Testua berrikusteko, zikloaren berezko ezagutza linguistikoa batzuk erabiltzen ditu.</li> <li>Zikloaren berezko arau gramatikal, lexiko eta ortografiko gehienak errespetatzen ditu.</li> <li>Testua berrikusteko interesa agertzen du.</li> <li>Lagunduta, enuntziatuak modu bateratuan uztartzen ditu.</li> <li>Azken testua idatzi eta berrikusteko, IKTak zailtasunez erabiltzen ditu.</li> <li>Bere ekoizpenetan diskriminaziozko esaera batzuk identifikatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testu-generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen ditu.</li> <li>Testua berrikusteko, zikloaren berezko ezagutza linguistikoa batzuk erabiltzen ditu.</li> <li>Zikloaren berezko arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak errespetatzen ditu.</li> <li>Testua berrikusteko inizatiba agertzen du.</li> <li>Lagunduta, enuntziatuak modu bateratuan uztartzen ditu.</li> <li>Azken testua idatzi eta berrikusteko IKTak modu nahiko eraginkorrean erabiltzen ditu.</li> <li>Bere ekoizpenetan diskriminaziozko esaerak saihesten ahalegintzen da.</li> </ul>

**18.- Hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albistek, oharra...)** ekoiztean kontroleko eta autoebaluazioko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

*Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu*

*Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu*

*Testua ekoizteko eta berrikusteko prozesuan autonomia agertzen du*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunduta, ekoizpen-prozesuan zehar beste hizkuntza batzuetako osagai lexikoak alderatzen ditu.</li> <li>Lagunduta, akats batzuk identifikatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekoizpen-prozesuan zehar beste hizkuntza batzuetako zenbait ezagutza erabiltzen ditu.</li> <li>Akats batzuk identifikatzen ditu eta horiek zuzentzeko gai da.</li> <li>Testua ekoizteko eta berrikusteko prozesuan autonomia eskasa agertzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekoizpen-prozesuan zehar beste hizkuntza batzuetako ezagutzak kontzienteki erabiltzen ditu.</li> <li>Bere akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</li> <li>Testua ekoizteko eta berrikusteko prozesuan autonomia-maila egoki samarra agertzen du.</li> </ul>

## 5. dimentsioa: Ahozko elkarrekintza

**19.- Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea.**

Adierazleak:

*Naturaltasunez esku hartzen du eta aktiboki entzuten du.*

*Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izaten ditu.*

*Informazioa eta azalpenak modu ordenatu eta egokian ematen ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikazio-trukean arreta zailtasunez mantentzen du.</li> <li>Bere komunikazio-trukeetan inhibizioa agertzen du.</li> <li>Lagunduta, komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izaten ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikazio-trukean arreta mantentzen du.</li> <li>Naturaltasunez, komunikazio-trukeak hasten eta mantentzen ditu.</li> <li>Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izaten ditu.</li> <li>Solaskidearen aurrean erantzuna modu nahiko eraginkorrean egokitzen du.</li> <li>Hizkuntza-aldaera modu nahiko eraginkorrean egokitzen du elkarrekintzara.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikazio-trukean arreta mantentzen eta esku hartzen du.</li> <li>Naturaltasunez eta modu eraginkorrean, komunikazio-trukeak hasten eta mantentzen ditu.</li> <li>Komunikazio-egoeraren ezaugarrietara modu eraginkorrean egokitzen da.</li> <li>Erregistro egokia erabiltzen du.</li> <li>Solaskidearen aurrean erantzuna egokitzen du.</li> <li>Hizkuntza-aldaera elkarrekintzara egokitzen du.</li> </ul>

**20.- Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan arau soziokomunikatiboak errespetatzea.**

Adierazleak:

- Hizkuntza-moldeak errespetatzen ditu.*
- Besteen esku-hartzeak errespetatzen ditu.*
- Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.*
- Adei-legea kontuan izaten du.*
- Diskriminaziozko esaerak saihesten ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikazio-trukean errespetuzko jarrera zailtasunez mantentzen du.</li> <li>• Komunikazio-trukean ahotsaren tonua eta bolumena zailtasunez kontrolatzen ditu.</li> <li>• Jarrera eta keinuak zailtasunez kontrolatzen ditu.</li> <li>• Lagunduta, hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikazio-trukean errespetuzko jarrera mantentzen du.</li> <li>• Komunikazio-trukean ahotsaren tonua eta bolumena noizean behin kontrolatzen ditu.</li> <li>• Jarrera eta keinuak noizean behin kontrolatzen ditu.</li> <li>• Hitz egiteko txandak ia beti errespetatzen ditu.</li> <li>• Noizean behin komunikazio-trukea hasteko eta bukatzeko hizkuntza-formula egokiak erabiltzen ditu.</li> <li>• Diskriminaziozko esaera batzuk antzematen eta zuzentzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikazio-trukean lankidetzatza eta errespetuzko jarrera ageri du.</li> <li>• Komunikazio-trukean ahotsaren tonua eta bolumena kontrolatzen ditu.</li> <li>• Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.</li> <li>• Adei-legea errespetatzen du.</li> <li>• Jarrera eta keinuak kontrolatzen ditu.</li> <li>• Komunikazio-trukea hasteko eta bukatzeko hizkuntza-formula egokiak erabiltzen ditu.</li> <li>• Diskriminaziozko esaerak erabiltzea saihesten du.</li> </ul>

**21.- Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan komunikazioari eusteko estrategiak erabiltzea.**

Adierazleak:

- Komunikazioari eusteko konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu.*

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ulermen-arazoak gainditzeko, bere komunikazio-trukeetan galdera soilen bat egiten du.</li> <li>• Elkarrekintzan zailtasunak gainditzeko, ahozkoak ez diren baliabideak erabiltzen ditu.</li> <li>• Komunikazio-trukean, bere esku-hartzeak arazoekin txertatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ulermen-arazoak gainditzeko, bere komunikazio-trukeetan galdera soilak egiten ditu.</li> <li>• Elkarrekintzan zailtasunak gainditzeko, ahozko baliabideak eta ahozkoak ez direnak erabiltzen ditu.</li> <li>• Mezuaren edukari buruzko bere hipotesietakoren bat egiaztatu eta berresteko galdera desegokiak egiten ditu.</li> <li>• Komunikazio-trukean, bere esku-hartzeak modu nahiko eraginkorrean txertatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ulermen-arazoak gainditzeko, bere komunikazio-trukeetan galderak egiten ditu.</li> <li>• Elkarrekintzan zailtasunak gainditzeko, ahozko baliabideak eta ahozkoak ez direnak erabiltzen ditu.</li> <li>• Mezuaren edukari buruzko bere hipotesiak egiaztatu eta berresteko galdera egokiak egiten ditu.</li> <li>• Komunikazio-trukean, bere esku-hartzeak egoki txertatzen ditu.</li> </ul>

## 4.2. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta lorpen-mailak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailarako

### 1. dimentsioa: Entzumena

